

GAURKO ELEIZA ETA GAZTEDIARI BURUZ

Guztiok dakigunez, Eleiza bere sortzetik eta gaurdaino Jesukristoren egia ta bizitza gordeten, zaintzen eta sakontzen aingindu da, geure kristau bizitzari argi ta garbi janari bikaina emon nairik Espiritu Santuak lagunduz. Eleizaren betebear au betikoa izan da eta betirako izango da munduan dirauan artean.

Baia gauza bat euki bear dogu kontuan: Eleiza munduan bizi dala, munduko dala alderdi batetik eta munduko eztabaidei erantzuna emoten jakin bear dauala. Jesus berberak esan eutsan lez, «munduko argia ta gatza» izatera deituta dago; bestela, «ez dau ezertarako balio... kanpora jaurtitzeko eta gizonak zapaltzeko» izan ezik.

Eta zein da gaurko munduaren ezaugarririk berezietarikoak? Bildur barik esan daikegu: ALDAKUNTZA.

Soziologoak auxe diñoskue kanpotik: Aittatu dogun aldakuntzaren abiada dala-ta, kultura baten aldakuntzak edo-ta kulturen aldakuntzak bost urtetik bost urteetara sortzen dirala gaurko munduan.

Egia au, beste era batera, geure Eleiza Amak be badiñosku Batikanoko Ilgn Batzar Orokorraren aotik: «Gaurko munduko aldakuntzak azkarrak eta sakonak ditala... gizonak bere adimenari esker sortuak... baiña gizona bera azkartasun eta sakontasun erreitan katigatua gelditzen dala nora jo ez jakinean.

Aldakuntza onein sortzaille indartsuenetarikoak gaurko

zientziak eta teknikak doguz. Eta zientzia eta teknika lez argi dagoz euren elburuak: Dana neurtu bear da eta akatsik ezin daiteke egin, ziur edo-ta zeatz-meatz atara bear dira ekintzen ondorioak; egia egiñez doa; gauza guztiak euren erantzuna mundu onetan dauke; materia da errealitate osoa eta gizona da gauza guztien neurria...

Giro onetan bizi gara eta giro onetan bizi yaku gaztedia bere.

Eskerrak, esango neuke, urte batzuk leenago jaio giñalako!

Eskerrak, diñot, beste giro bat ezagutu gendualako, beste esperientzi batzuk bizi aal izan genduzalako eta eurei eskerrak, kritika baten bidez, gaurko ikuspuntu ezberdiñak ulertu daikuguzalako. Esan oi danez, egiaren bidean ibilteko kanpaiaren ots biak entzuten jakin bear da. Gaurko gazteak, toki askotan beintzat, ots baten durundipean bizi diralako oztopo aundiekin aurkitzen dira kritika bat egiteko orduan.

Uste izanez au onela dala, zer esan daikegu gaurko gazte-
diak Jainko-esperientzi bat euki dagian? Zelan jokatu bear dogu
geure pastoral ekintzetan? Zelako programaketa egin?

Idazlantxo oneri dagokion labur izateari eutsi nairik, ona emen neure iritzia. Egia esan, Jainko-Erriaren esperientzia da iritzi onen sustraia.

Leenengo ta beñ urtetzea (Exodo) bearrezkoa da. Gazteak urten egin bear dau daukazan lotura eta ezezko jokaeretatik. Bakarrak orduantxe egongo da gertuta Jesusen Erreiñuaren deia ulertzeko eta baliozteko eran. Mailla onetara eldu nai badau, eremu-giroan sartu bear da. Une onetan, gizona bera izaten asi bear da edozetariko lotura txarretatik askatu nairik, gerotxoago argi aukeratu dagian.

Bigarren mailla: Biotz-aldaketa edo konbersiñoia.

Garrantzi aundikoa da benetan gure gazteak ikusi dagiala bere biotza dala Jesusen Erreiñuko oiñarria. («Barrutik

-biotzetik- urtetzen dauanak zikintzen dau gizona»). Bere ezereza ikusirik, Jaunkoaren naiaren billa urten bear dau gazteak, naai orreri jarraitzeko asmoagaz. Ementxe datza Paulo Deunak esaten dauskun «gizon barriaren» muiña.

Irugarren: Beñi «urten» ezkerro eta «biotz-aldaketa» maillan oiñarritu ezkerro, Kristogaz bat-egitea da elbururik garrantzitsuena: Kristo ezagutu, maitatu eta Beragaz bat-egin.

Auxe izango litzateke egizko katekesisaren unea: Kristoren ezagueraren bidez kristautu bear da gaztea, bai buruz eta biotzez, bai jokabidez. Argi dago irugarren mailla au gero etorriko diran burubide ta jokabideen eutsigarri izango dana. Bestela, beste aburu eta jokabideetara joateko arriskua dago. (Auxe izango litzateke Ebanjelioak diñoskun aitz gainean ercikitako etxea).

Laugarren: Gaztea anaien Eleiza baten barruan bizi bear da.

Betiko gazteak, baiña batez be gaurkoak, talde bat eskatzen dau bere bizileku lez. Benetan, ikutzen gagozan puntu au, gizona gizon lez bizitzeko bearrezkoa dau. Gizona artu-emon batek sortu dau, artu-emon barik ezin da bizi, eta azken baten... artu-emon maitetsu batera deituta dago. Egia au gizonaren sustrai-sustraiari dagokion berezitasun bat dogu.

Eta gaurko gaztea bakardade itza entzunaz batera... bakarrik, urduri eta kezkatu jartzen da.

Nik uste dot auxe dala gure gaurko Eleizak daukan akatsik nagusienetariko bat: Bakardadeko Eleiza dala naiz eta jende asko ibilli bere barruan; ez dogula anaitasun bat bizi; askoz be indar aundiagoa daukeela Eleiz-estrukturak; geure artean kristiñautasunari ez dagokion ezbardintasun batean bizi garala... Ba dago emen zeregiña!

Eta amaitzeko, bosgarren atal lez, beste laurakaz bat-eginda... gazteak histori konkretu baten barruan bizi bear dau pertsona eta mundu barri batzuen sortzaile lez.

Batikanoko IIn. Batzar Orokorren irakatsirik ederrenak

Konstituziño bitan daukaguz. Bildur barik esan daikegu bere egizko gogoa ortxe dagola.

Alderdi batetik «Lumen gentium» edo munduaren argi izan bear dauala Eleizak. Orretarako sakon ikusi ditu bere izate bereziari dagokiozan arazoak. Konstituziño onetan, Eleizak bere erantzuna emon dautso galdera oneri: Eleiza, zer diñozu zutzaz?

«Gaudium et Spes» edo munduaren pozak eta itxaropenak dogu bigarren Konstituziño garrantzitsu au. Kristoren pentsakereia munduko arazoen erdian sartu bear dogu. Kristoren ikuspegitik ikusi eta epaitu bear doguz munduko eztabaida guztiak. Batez be, galduta dagozanen agoa eta bizitza izan bear dau Eleizak, istilluen erdian egonez, geroko mundua gaurkoan sartzen eta sortzen aaleginduz.

Puntutxo bat: Ikusi dogun jokabide guzti au Eukaristian sartu bear dogu. Jesus Berbiztua eta bere Espiritu Santua betirako geugaz dagozalako aurrerantz egiten aalegindu bear gara istillu guztien erdian. Goazen, bada, gizon barri eta mundu barrietarantz.

Uste dot emendik joan bear dala gure gazteen kristau-eziketa.

Kepa Agirre